

# B E U S K A R A R E N B E R R I P A P E R A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZA

## Kultura Sailak 116 bideofilme euskaratu ditu zortzi urtean zehar

Orain zortzi urte bideoak euskaratzeari ekin zionetik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 250 milioi pezeta baino gehiago erabili ditu 116 bideofilme euskaratzen eta ohiko salmenta tokietan jartzen. Harrera ona izan dute: urte hauetan 55.000 kopia inguru saldu dira. Aurten sei titulu jarriko dira salgai.

### Egitasmoaren helburuak

- Ekimen pribatuak betetzen ez duen eremura iristea.
- Euskarak ikusentzunean duen presentzia areagotzea.
- Euskaraz dauden ikusentzuneko materialen merkatua sortzea.
- Euskaraz bizi nahi duten herritarrei filmeak euskaraz ikusteko aukera ematea.
- EAEn lanean diharduten ikusentzuneko enpresen arteko elkarlana bultzatzea.

### Bideo motak

- Orain arte, nagusiki, hiru bideo mota jarri dira merkatuan:
- ETBn erakutsi diren ospe handiko filmeak.
  - Abentura filmeak eta kalitate goreneko marrazki biziak.
  - Dokumentalak.

### Aurtengo bideoak

- Periko eta Benjamin
- Untxien Ipuina.
- Gloucester-eko Jostuna.
- Eguzkiaren Erregea.
- Panama, Bai Polita!
- Lekuko Bakarra.
- Zeruak Itxaron Dezake.

### Publikoaren erantzuna

Lehen urteak, kanpainaren nondik norakoak ondo lotu eta haren berri ondo zabaldu arte, ez ziren oso emankorrak izan.

Hori guztia aldatu egin zen 1990ean banaketa etxea kontratatzearekin batera: eskaintza izugarri zabaldu

zen, bideoak salgai jarri ziren oso salneurri egokietan eta kanpaina zabala egin zen eskaintzaren berri emateko. Salmentei dagokienez, 1992 izan zen urterik onena: 25.000 kopia baino gehiago saldu ziren.

Harez gero, salmentak jaitsi egin dira, batez ere bideo eskaintza murriztu egin delako. Kultura Saileko arduradunen ustez, hala ere, proportzioan Katalunian katalanez baino bideo gehiago saltzen dira Euskadin euskaraz. *Purpura Kolorea* eta beste 46 titulu ospetsu ahiturik daude dagoeneko.

### Salmentak eta eskaintza lotuta doaz Euskarazko bideogintzaren bilakaera azken urteotan

Urteak	Bideo kopurua	Kopiak	Aurrekontuak	Saldutakoak
1987	10	2.500	12.000.000	0*
1988	9	2.250	12.000.000	0*
1989	9	2.250	12.000.000	0*
1990	27	20.500	69.500.000	2.355
1991	31	23.500	70.000.000	4.710
1992	16	14.000	40.000.000	26.319
1993	4	6.375	13.100.000	10.397
1994	4	9.825	10.800.000	10.702
1995	6	6.000	12.100.000	3.009**
<b>Guztira</b>	<b>116</b>	<b>89.200***</b>	<b>251.500.000</b>	<b>54.483</b>

(\*) Dirulaguntzak soilik. Administrazioak ez zuen kopiarik eskuratzen.

(\*\*) 1995.VI.30era artekoak, ETBk saldutakoak kontatu gabe.

(\*\*\*) Kopien %10 publikizaterako erabili da.

Iturria: Kultura Saila

# Anjel Lertxundi, heldutasunaren gailurrean

Aurten askoren ahotan ibili da. Anjel Lertxundi: ETB1eko *Goenkale* telesaiorarakastatsuan gidoigile lanetan ibili delako, *Otto Pette* bere

azken nobelak izan duen arrakastaren kausaz eta uztailean irabazi duen Rikardo Arregi Kazetaritza saria dela eta. Izan ere, 47 urteko oriotarra euskal literaturak gaur egun dituen zutabe sendoenetakoa da. Bere lana ez da litaraturara mugatu. Filosofia eta Letra ikasketak amaitu ondoren, irakaskuntzan egin zituen urte batzuk.

Kazetaritzan ere bide luzea du egina: *Egin, Ere, Argia, Garaia, El Mundo eta Euskaldunon Egunkarian* idatzi izan du.

*Etor, Gero* eta *Erein* argialetxeen eta *Ipurbeltz* aldizkariaren bultzatzailetakoa izan zen.

Bi filme ditu: *Hamasei garreanean Aidanez* eta *Kareletik*.



Anjel Lertxundi

Baina Anjel Lertxundi literaturgile moduan da ezagunen. 1970ean plazaratu zuen lehen liburua:

*Hunik Arrats Artean*. Harez gero, liburu andana idatzi du. Batzuk haur eta gazteei zuzendutakoak: *Tristek*, *Kontsolatzeko Makina*, *Madame Kontxesi saila*, etabar luzea. Nagusien literaturan ere idazle emankorra dugu: *Goiko Kale*, *Aise Eman Zenidan Eskua*, *Tobacco Days*, *Hamaseigarreanean Aidanez*, *Carla* eta *Kapitain Frakasa*. Iaz

bere nobelarik osoena eta arrakastatsuenaz izan litekeena idatzi zuen: Erdi Aroan girotua den *Otto Pette* mardula.

Urriaren herri tradizioan oinarritu baina ipuin erabat originalaz osatuko diren lau libururen arteko lehena kaleratuko du, gai nagusi deabrua eta heriotza izango duena.

## Euskaldunak ESIS elkartean

Uztailaren 19tik 21a bitartean Xabier Aizpurua eta Josean Urdangarin, Hizkuntza Politikarako Sailordetzako ordezkariak, Europako Soziolinguistikako Inkesten Sareak eratuak izan ziren.

Europako Soziolinguistikako Inkesten Sarea 1994an sortu zen, Europako Elkartearen laguntzarekin. Hizkuntza minoritarioen ikerketan eta garapenean zerikusia duten lau erakunde osatzen dute: Irlandako Hizkuntza Institutua, Galesko Ikerketa Zentrua, Frisiako Akademia eta EAEko Hizkuntza Politikarako Sailordetza.

Sarearen helbururik nagusiena hau da: 1991tik hona lau herrialdeotan egin diren inkesta soziolinguistikoetan oinarrituz, hiru urteko epean, gainerako hizkuntza minoritarioentzat erabilgarri izango den inkesta eredu amankomuna garatzea.

### Azaroan hizkuntzei buruzko kongresua Bartzelonan.

Kataluniako Soziolinguistika Institutuak eratuak, azaroaren 9an eta 10ean *Hizkuntza Plangintzari Buruzko Europako Kongresua* egingo da Bartzelonako Gaur Egungo Kultura Zentruan. Aldi bereko itzulpena izango da katalanera eta ingelesera. Izenak emateko epea irailaren 30ean bukatuko da. Tel.: (93) 482 56 72/73.

### Euskaltzaindiak ordezkari berria du Araban.

Patxi Goenaga euskaltzaina da Euskaltzaindiak Araban duen ordezkari berria. Manuel Ruiz Urrestarazu ordezkatu du. Patxi Goenaga euskaltzain urgazle izan da hamasei urtez; urtarrean euskaltzain oso hautatu zuten. Gramatika eta LEF batzordeetan egiten du lan. Euskal Filologian doktore, EHUko Arabako campuseko dekanordea da.

### Euskaltzaindia eta BBK Literatur sariak.

Urtero legez, Euskaltzaindiak eta Bilbo Bizkaia Kutxak 1995eko literatur sarien deialdia egin dute. Txomin Agirre saria eleberrian; Toribio Altzaga saria antzerkian; Felipe Arrese Beitia saria olerkian; Mikel Zarate saria saioan eta Resurrección M<sup>a</sup> Azkue saria idazle gazteei zuzendua. Lanak aurkezteko epea urriaren 16an itxiko da.

### Bigarren hizkuntza ikasteko adinik ez.

Itziar Idiazabal, EHUko Filologia, Geografia eta Historia fakultateko irakasleak *Hizkuntzen Irakaskuntzako Murgiltze Programak* ikastaroan adierazi zuenez, "ez dago adin jakinik haur batek bigarren hizkuntza ikas dezan". Irakaslearen iritziz, eskolak bermatu behar du haurrak hizkuntza biak barneratu eta batean bestean bezain ongi adierazi ahal izatea.

# Literatura unibertsala euskaraz

Normala da literatura unibertsaleko edozein liburu. -*El Quijote de la Mancha, Hamlet* edo *Eneida* kasu-jatorrizko hizkuntzan barik, beste hizkuntza batean irakurtzea. Orain dela gutxira arte, euskaldunok ez dugu munduko idazlerik ospetsuenak euskaraz irakurtzeko egokierarik izan. 1989tik hona, berriz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta EIZIEk (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak) *Literatura Unibertsala* izeneko bilduma sortzeko asmoz sinatu zuten hitzarmenaren ondoren, Capote, Dickens, Dostoievski, Faulkner, García Marquez, Goethe, Hesse, Joyce, Montesquieu, Stevenson, Tolstoi, Woolf eta beste idazle esanguratsuen 48 liburu euskaratuak ditugu.

## Hitzarmenaren helburuak

■ Mundu osoko literatur lanik adierazgarrienak eta historian zehar erdaraz idatzitako lan bikainak euskaraz irakurtzeko moduan jartzea.

■ Mailarik goreneko itzulpengintza lortzea.

1989az gero, Kultura Sailak diru kopuru bat jartzen du urtero, 1995ean 14.000.000 pta, itzulpenak egin eta egile eskubideak ordaintzeko.

Urtero, halaber, epaimahai bat osatzen da. Honek, EIZIE elkartearen. literatur batzordeak hautatutako lanetan. oinarriturik, hainbat itzultzailek aurkezturiko proiektuak baloratu eta lanen adjudikazioa egiten du.

## Argitaraturiko azkenak

Argitaratu. diren azken liburuak hauek izan dira: Lampedusaren *Gattopardo*, Gorkiren *Ama* eta Sánchez Ferlosioren *Alfanhui*. Antton Olariagak egin du hiruren diseinu berria.

Durangoko azokarako beste hiru plazaratuko dira: Borges-en *Borges eta Ni*, Camisso de Boncourt-en *Peter Schlemihls*-en *Istoria Miresgarria* eta Paveseren *Bizitza Lanbide*. Beste 16 lan euskaratzen ari dira.

## Hizkuntza planifikazioa aztergai EHUn

Jose M<sup>a</sup> Zeberio, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak hitzaldia eman zuen Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian egin dituen XIV. Uda ikastaroetan: Hizkuntza Planifikazioaren Etorkizunerako Proposamenak.

Sailburuordea iragan uztaila amaitu zen plangintzaldiaz mintzatu zen, herri erakundeetan egin den jarraipena nahikoa positibotzat joz. M Datorren plangintzaldian hizkuntza planifikazioa beste arlo batzuetara hedatzeko asmoa dutela iragarri zuen: Osakidetzara, unibertsitateetara eta Ertzaintzara, besteak beste. Orain artean 27.000 langilerekin egin bada lan, aurrerantzean jende gehiagorengana iritsi nahi omen da. Administrazioa euskalduntzeko eta herritarren eskubideei erantzun ahal izateko funtsezko tresnatzat jo zituen hizkuntza eskakizunak.

## Argitalpenak

### Ikerkuntza Euskaraz

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gipuzkoako campuseko Euskara batzordeak Ikerkuntza Euskaraz. Lehen Ihardunaldiak liburutxo argitaratu du. Jardunaldi haietan irakurritako zazpi ponentzietan, Gipuzkoako campusa osatzen duten fakultateetan euskaraz eginiko ikerketak zertan diren aztertzen da.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako  
Sailordetza  
Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gazteleraz

Izen-deiturak: .....

Helbidea:.....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

## Galdezka


### Familia eta euskara

**G** Kontuan izanda zenbaterainoko garrantzia duen familiak hizkuntzaren belaunehi belauneko transmisioan, zein helburu ditu Sailordetzak, epe laburrera, gai horri buruz?

**E** Familia dugu hizkuntza transmititzeko ardatz nagusietako bat; ahaztu gabe, jakina, eskola eta gertuko komunitatea. Eta, ezaguna den bezala, administrazioek hainbat ekintza gauzatu dituzte hizkuntzaren transmisioa indartzeari begira.

Baina, egia da ere, orain arteko kanpaina gehienek hizkuntza gaitasuna areagotzea izan dutela helburu, eta, hartzailek garrantzizkoenak haurrak eta eskolameak izan direla.

Orain, berriz, bat da gure erronka: umeak gertu-gertu dituen horiengana heldu, eta, plangintza koordinatu baten barruan, euskararen aldeko erak indartzeko eta hizkuntzaren gizarte erabilera areagotzeko ihardunak martxan jartzea.



**Jose M. Zeberio**  
Hizkuntza Politikarako  
idazkari nagusia

## Euskararen inguruko diplomaturak

Azken urteotan ugalduta egin dira EAEko unibertsitateek euskararen inguruan eskaintzen dituzten graduatuondoko unibertsitate diplomaturak edo masterrak. Euskara lan hizkuntza duten suspertzaile, zerbitzaburu, euskara teknikari, irakasle, itzultzaile, kazetari eta unibertsitarioak trebatzea dute helburu.

### Euskal Herriko Unibertsitatean

- *Hizkuntza Plangintzarako graduatuondoko unibertsitate diplomatura*. 25 kreditu. Zuzendaria: Koldo Zuazo. Leioako campusean ematen da. Kostua: 75.000 pta. Tel.: (94) 464 77 00.
- *Irakasleen formazioa bigarren hizkuntzen ikaskuntza irakaskuntzarako: euskara*. 55 kreditu eskaintzen ditu. Ikasleak:

15 eta 25 artean. Arduraduna: Felix Etxeberria. Donostiako campusean.

Tel.: (943) 29 27 00.

- *Itzulpengintza unibertsitate masterra*. Gutxienez 100 kreditu eskaintzen ditu. Ikasleak: 30 eta 40 artean. Arduraduna: Itziar Idiazabal. Gasteizko campusean. Tel.: (945) 13 98 11.

- *Euskalduntze eta Alfabetatzea graduatuondoko unibertsitate diploma-aditua*. Gutxienez 45 kreditu eskaintzen ditu. Ikasleak: 15 eta 25 artean. Arduraduna: Pauli Dávila. Donostian.

### Deustuko Unibertsitatean

- *Graduatuondoko eta Aditu titulua*. Ikasturte bakar batean edo bitan lor daiteke.
- *Espezializazioko diploma*. Gutxienez, bost modulu egin behar.

## ✓ Kontutan hartzeko

- **Kilometroak**. Aurten Donostian izango da Gipuzkoako ikastolen festa, urriaren 1ean, Zurriola eta Herri Arnetsa ikastolen alde. Abestiaren izena bat dator ospakizunaren leloarekin: *Zurea eta Nirea, Euskararen Bidea*. Musika Izaro Garmendiak sortu du. Letra, berriz, Joan Mari Irigoien idazleak.

- **Nafarroa Oinez**.

Aurtengo edizioa Nafarroako Erriberaren hiriburuan egingo da, Tuteran alegia, urriaren 15ean. Edizio honetako abestiak *Tutera inoiz baino gehiago* du izena. Musika Jabier Pérez de Obanosek idatzi du. Letra, ordea, Mikel Ziordiak.

- **Lapurtarren Biltzarra**. Urriaren 1ean egingo da, Ustaritzen. Desfilea, herri bazkaria eta ospakizunak.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

